

KIROLEAN INDARKERIA PREBENITZEKO KOMUNIKAZIO-GIDA

**Kirol topaketa baten garapen normala
babesten duten balioak transmititzea,
oinarrizko kiroletik hasi eta kirol
profesionaleraino.**



KLUBAK ETA TALDEAK

Komunikazioa klubean

Kirol-kluben komunikazio-jarduna ongi planifikatzea lagungarria izaten da, kirola egiteko modu bidezkoa, inklusiboa eta segurua eraikitzeko.

Kirol-erakundeek komunikazio-planak izan beharko lituzkete, plan horietan jasota izateko garatu beharreko komunikazio-ekintza guztiak. Helburu hori, baina, lorrezina da kirol-klub txikien kasuan, nahikoa lan izaten baitute eguneko betebeharrei aurre egiten.

Jarraian, komunikazio-jardun egokia ezartzeko zenbait ekintza aurkezten ditugu, balioak, etika, kiroltasuna eta joko garbia helaraztea helburu. Horretarako, beharrezkoa da kirol-sozietatearen antolakuntza-egitura osoak parte hartzea eta guztiak engaiatzea helburu horretan: jokalaria, teknikaria, entrenatzaileak, kirol-zuzendariak, langileak, boluntarioak, gurasoak, zaleak, erakunde publikoak, babesleak, etab.



Komunikazio-plana

KLUBAREN POLITIKAK ERREALITATE BIHURTZEA.

Denboraldian barrena garatu behar dituen komunikazio-ekintzak zehaztu eta planifikatu behar ditu klubak, eta horren barruan jaso behar ditu klubaren kode etikoa ezagutarazteko ekintzak: besteak beste joko garbia, berdintasuna, balioak, adiskidetasuna eta garapen pertsonala sustatzea helburu dutenak.

Politika, kultura, jokabide-kodeak eta prozedurak garrantzitsuak dira kirol-erakundeetan, baina modu ezberdinean komunikatu behar dira euren misioa bete dezaten.

Adibidez: Errespetua eta balioak agertzea gure klubaren izaeraren parte da:

Komunikazio-ekintza:

Sare sozialetan jarduteko gure plangintzan barruan, lekua ematea klubaren balioak erakusteko espazioei.

Sozietateko talde bateko kirolariak beste taldeko kideei eskua ematen azaltzen diren argazkiak argitaratzea sare sozialetan (Facebook/Instagram).

Izenburua: Errespetua. Guztiei errespetua eta gizalegea agertzea da gure klubaren jokabide-kode garrantzitsuenetako bat (#errespetua).

Berdintasuna

Komunikazio-ekintza: Nesken taldeen argazkiak argitaratzea: futbolean jokatzen edo entrenatzen, esfortzua egiten, ikasten eta helburuak lortzen eta abar.

Adiskidetasuna, berdintasuna eta halako balioak islatzen dituzten argazkiak argitaratzea sare sozialetan; adibidez, neska txiki bat futboleko baloiari lehen ostikadak ematen.

Izenburua: Berdintasuna. Baloiak ez du ez jaberik ez generorik (#GoraFutbola)

Esker ona:

Isteko buletinean, kodeetako bat sartu, eta adibideetako bat praktikan jarri: Aste honetako jokabide-kodea: gure kirolean parte hartzen duten guztiei errespetua agertzea. Argazkian, kadete mailako taldeko jokalaria ageri dira klubeko langile eta boluntario guztiei esker ona adierazten emandako laguntzagatik.

Parte-hartzea:



Garrantzitsua da senior mailako jokalaria eta kirolari gazteentzat eredugarri izan daitezkeen jokalaria garrantzitsuak inplikatzeko. Ildo beretik, zaleen parte-hartzea ere oso garrantzitsua da, taldearen balioak transmititu eta egoera konplikatuetan taldeak sentitzen duen tentsioa murriztu dezaten. Motibazio-hitzaldiak eman daitezke aldagelan edo erakundeak dituen aretoetan.

Denboraldian zehar astero-astero jokabide-kodeak era atseginean gogorarazi daitezke, errealitate bilakatu daitezke.



SODUPE U.C.

@SODUPEUC

COMUNICADO OFICIAL: Asier y Oier, protagonistas de esta preciosa fotografía, realizarán el saque de honor en el partido del sábado en el Hurtado de Saratxo a las 18 horas ante el Tolosa.

[#AupaSodupe](#)



KLUBA ETA BERE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN TALDEEKIN

KOMUNIKATZEA

Publikoa:

Fitxaketak edo egungo jokalaria, entrenatzaileak, boluntarioak, langileak, gurasoak, ikusleak, bazkideak, etab.

Ej: Adibidez: Gurasoak eredu gisa hartzen dituzte adingabeek:

Komunikazio-ekintza:

IGurasoei jakinaraztea zer-nolako balioa duten adingabeentzat. Horregatik, ezinbestekoa da jokabide egokia izatea eta taldea eta kirol-elkartea babestea. Ildo beretik, ezin hobeto jardun behar dute epaileekin, aurkariekin, etab. Ezin dugu ahaztu zertarako lehiatzen diren adingabeak; hots, ondo pasatzeko, dibertitzeko eta, neurri handi batean, hezteko eta balio jakin batzuk barneratzeko. Hau da, ez dira lehiatzen gurasoen anbizio edo desioak betetzeko.

Adibidez: Klubaren balioak:

Komunikazio-ekintza:

Webgunean kiroltasuna bultzatzen duten jokabideen gaineko informazioa eskaintzea; adibidez, horrelako albisteei atal propio bat emanaz. Horrela eginda, klubaren ekosistema digitala bisitatzen dutenek klubak kiroltasuna bultzatzen duela pentsatuko dute. Aldiz, sare sozialetan klubeko taldeen emaitzak soilik jasotzen badira, ez da klubaren irudia behar bezala zaintzen. Aldian-aldian, bestelako mezu batzuk ere zabalduz gero (kiroltasuna bultzatzeko ekitaldiak, erakundearen balioak eta abar), klubaren gaineko bestelako irudi bat eskainiko dugu, kultura, historia, etika, kiroltasuna eta halakoak bultzatuta; gainera, lagungarri izan daiteke erakundearen balioekin identifikatzen diren jokalaria berriak erakartzeko.

Adibidez: Fitxaketa edo kolaboratzaile berriak

Komunikazio-ekintza:

Klubeko kide berriei egokiro azaldu behar zaizkie bertako balioak, jokabide-kodeak, adingabeen babesa, eta abar. Era berean, sortzen zaizkien zalantza eta kezken berri nola eman dezaketen ere azaldu behar zaie. Kide berriekin komunikatzeko kanalak izan daitezke: posta elektronikoa, denboraldi hasierako bilerak, gidak eta abar.

Garrantzi handiko kontuetan, ezinbestekoa da erakundea osatzen duten talde guztiak jakinaren gainean egotea; adibidez, klubaren jokabide-kodeen berri izan behar dute.

Kasua kasura egokitutako komunikazioak hobeto funtzionatzen du beti. Esate baterako:

- COna da jokalaria gazteekin berriketaldi bat izatea denboraldi hasieran, giro atseginean azaltzeko klubaren jokabide-kodeen berri.
- Lehen taldeko jokalarien kasua, beharrezkoa izan daiteke jokabide-kodeak edo kode-etikoak sinatzea, baita beren ardurak informazio-buletinen bitartez gogoraraztea ere.
- Entrenatzaileei entrenamendu-bileretan eman dakieke informazio hori. Kode horiei atxikitzea eta jokalarien hezitzaile izatea. Komunikazioa ondo bideratuz gero, eraginkorrak izango dira mezua.
- Jokalarien gurasoekin bilerak egitea; haien rola aldatu egingo da haurren adinaren arabera.

HIZKUNTZA

Erabilitako hizkuntzak, bai idatzizko komunikazioan bai ahozkoan, hurbilekoa baina edukazio onetara izan behar du beti.

Sare sozialetan gizabidez jokatu behar da beti, joratu beharreko gaiaren arabera hizkera informalagoa erabiltzeko aukera badagoen arren.

Komunikabideekin izan beharreko harremanetan, kazetaritzako hizkera erabili behar da informazioa zabaltzerako orduan.

Kirol-elkarteen kode etikoaren, errespetuaren edo joko garbiaren aurkako jokabideren bat izaten bada, klubak irrimo salatu behar du gertatutakoa.

ENTZUTE AKTIBOA

Modu egokian entzun behar zaie kluba osatzen duten taldeetako kideei. Esateko duten hori ulertzeko saiakera egin behar da; alderdi onak topatu, eta erakundearen hobekuntza-eremuak zehatu. Esateko duten hori lotuta egon daiteke jokalarien hautaketarekin, partidetan jokalariek duten jokabidearekin, errespetu-faltarekin, sare sozialetan izaten diren arazoekin, neurritz kanpoko oihartzuna hartzen duten garrantzi gabeko kexekin eta abarrekin.

Ezagutzen ez duguna besterik gabe ontzat ematea ez da egokia, eta, ondorioz, denbora eskaini behar dugu edozein arazoren muinera heltzeko eta klubarentzat onuragarria izango den irtenbide bat bilatzeko.

ESKURAGARRI DAUDEN KOMUNIKAZIO-KANALEN ERABILERA ZUZENA

EGITEA

- Online komunikazioa: webgunea, buletina, posta elektronikoa, Whatsapp, SMSak, sare sozialak.
- Inprimatutako materialak: klubaren egunkaria, urteko memoria, denboraldi-aurreko dokumentazioa, sarrerako dokumentazioa.
- Aurrez aurreko komunikazioa: bilera informatiboak, lehiaketa egunak, entrenamenduetako berriketaldiak, biltzarrak.
- Espazio fisikoak: instalazioetako informazio-oholak, megafonia...
- Formal: Komunikazio formala: zuzendaritzaren bilerak, biltzarrak, zirkularrak, memoriak...

INDARKERIA KLUBEAN

- Jarduketa-protokolo bat behar da, indarkeria egoeraren bat gertatzen baldin bada ere. Protokolo horren barruan, lantalde bat osatu beharko da:
 - Larrialdietako taldearen osaera.
 - Komunikazio-ekintzak.
 - Informazio eta lekukotzak bildu behar dira. Gertatutakoaren gaineko ikuspegi osoa izan arte ez da argitalpen edo iruzkinik egin behar.
 - Gertatutakoaren eta klubaren irudian izango duen eraginaren analisia egin:
 - Zer argitaratu den, nork eman duen gertatutakoaren berri.
 - Elnpaktuaren eta funtsezko adierazleen arabera, krisiaren katalogazioa egin behar da.
- Gertatutakoa arintzeko eta klubaren jarreraren berri emateko tresnak landu behar dira.
 - Prentsa-oharra, elkarrizketak, eta abar.
 - Informatiboa eta gaitzespenekoa.
 - Neurri zuzentzaileak.
- Kanalak
- Zabalkundea.

- Webguneak.
- Sare sozialak.
- Komunikabideak.
- Erakunde publikoak eta kirol federazioak (adibidez: ekitaldiak elkarrekin antolatzea).
- Neurri zuzentzaileen eraginaren analisia.
 - Zer komeni den zehaztea: komunikazio-ekintza gehiago egiten jarraitu edo ez.

OSTEKO EKINTZAK

- Klubeko estamentuekin bilerak.
 - Irudia hobetzeko kanpaina.
 - Klubak dituen balioak indartzea.
 - Protokoloa aldatzea.
 - Zoritarretatik aukerak sortzea